

ARGAZKI-ERAKUSKETAREN GIDA-LIBURUA

India iruditan



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA
Gizarte Ongizateko Sailburuordetza
Garapen Lanikidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Bienestar Social
Dirección de Cooperación al Desarrollo



ALBOAN

Bi ontzien ipuina

“Indiako urketari batek bi ontzi handi soilik zeuzkan. Makila baten bi ertzetan bana zintzilikatzen zuen, eta sorbalda gainean eramaten zituen. Batek zenbait pitzadura zituen eta ura galtzen zuen, eta bidearen amaierara erdiraino beteta iristen zen. Bestea, berriz, berria bezala zegoen eta likido guztia gordetzen zuen. Egunero gertatzen zen gauza bera. Pitzadurarik gabeko ontzia oso harro zegoen bere lorpenekin, ezin hobeto betetzen baitzuen bere egitekoa. Baina pitzatutako ontzi gaixoa bere akatsez lotsatuta zegoen, ez baitzen gauza egitekoa behar bezala betetzeko. Beraz, bi urteren buruan honela esan zion urketariari: “Lotsatuta nago eta barkamena eskatu nahi dizut, izan ere, nire pitzadurak direla eta, zure lanarengatik jaso behar zenukeenaren erdia jasotzen duzu”. Eta urketariak erantzun zion: “Etxera bidean, begiratu nolako lore politak hazi diren bidean”. Halaxe egin zuen ontziak eta hamaika lore eder ikusi zuen bide-zidorrean. Baina goibel zegoen hala ere, uraren erdia galtzen jarraitzen zuen eta. Orduan, urketariak esan zion: “Ohartu al zara, zu etortzen zaren aldean soilik hazten dira loreak. Zure pitzaduren alderdi positiboa nabarmendu nahi nuen eta lore-haziak landatu nituen. Egunero ureztatu dituzu eta bi urtez bildu ahal izan ditut. Zaren bezalakoa ez bazina, dituzun gaitasun eta mugak ez bazenitu, ezinezkoa izango zen edertasun hau sortzea. Guztiok daukagu pitzaduraren bat edo beste nonbait, baina beti dago moduren bat pitzadura horiek emaitza onak lortzeko aprobetxatzeko.”

(Indiako ahozko tradizioko ipuina)



India zenbakitan

Indiaren izen ofiziala Bharat da. Herrialdea 25 estatuk eta 7 lurralde-batasunek osatzen dute. Mila milioi lagun baino gehiago bizi dira han, eta 18 hizkuntza ofizialetan (hindi-a da zabalduena) eta 1.000 dialekto baino gehiagotan mintzatzen dira. Ingelesa atxikitako hizkuntza da eta erabilera zabalekoa, arrazoi administratiboak direla eta.

Indiako hiriburua New Delhi da eta 1995ean ia hamaika milioi lagun bizi ziren han. New Delhiz gain, beste hiri garrantzitsu batzuk ere badaude:

- Bonbai-n hamabost milioi lagunetik gora bizi dira.
- Kalkuta-n, hamabi milioi.
- Madras-en, sei milioi.
- Bangalore-n, bost milioi.
- Haidarabad-en, bost milioi eta erdi.

Indiarren artean arraza, kultura eta talde etniko askotako jendea dago. Gehienek herri arioetan dute jatorria, zibilizazio bedikoa sortu eta oraindik badirauren kasta-sistema indartsua ezarri zuten herrietan, alegia. Iparraldean oraindik antzematen da arabiarren (VII. mendetik XIII. mendera) eta mongoliarren (XII. mendean) inbasioen eragina, kultura-aniztasun handia ekarri baitzioten. Dekan-eko goi-lautadan eta hegoaldean dravida jatorriko herriak dira nagusi, oraindik ere tradizioei eusten dieten herriak.

HONA HEMEN HORIEN BIZIMODUARI BURUZKO DATU BATZUK:

	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Bizi-itxaropena jaiotzean	63,8	62,8
Helduen alfabetatze-tasa	45,4	68,4
Ordaindutako lanengatik jasotzen duten gutxi gorabeherako diru-kopua	1.267	3.383
Giza garapenaren indizean duen postua	124/173	
Lan-denbora osoa (minutu /egunean)	457	391
Merkatutik kanpoko jarduerak (ordainik gabeak)	65	8

PROPOSAMENAK...

Bilatu mapan Indiako hiririk garrantzitsuenak eta saiatu asmatzen zergatik kontzentratzen diren hor hainbeste biztanle.

Bilatu Bilatu hemen zure herrialdearen edo beste baten datuak eta aztertu.
<http://www.undp.org/hdr2002/espanol/indicadores.pdf>



Herrialdea

India hiru eskualde handitan banatuta dago: Himalaia, iparraldeko mugan; Gangesen lautada, lurralde joria eta populazio-dentsitate handikoa, iparraldean; eta Dekan-eko goi-lautada, erdialdean. Himalaia mendikateak iparraldeko haize hotzei bidea eragozten die. Klima montzoiek zehazten dute: epela eta lehorra da urtean zortzi hilabetean, eta udan euri ugari egiten du.

3.287.590 Km²-ko azalera du, Estatu Batuen herena gutxi gorabehera eta hone-lan banatuta dago:

- %56 ereiteko moduko lurra da.
- %1 zerealak
- %4 larreak
- %23 basoak
- %16 besteak

Arrozaren ekoizpena da nagusi eta ikatza eta burdina dira meatze-baliabide nagusiak.

Barne-kontsumorako filmen produktore handiena da India, eta industria informatiko oso aurreratua du.

Batik bat, ehun-gaiak, harribitxiak eta bitxiak, ingeniaritza- eta kimika-gaiak, larrua eta esku-lanak esportatzen ditu. Eta honakoak inportatzen ditu: petrolioia eta deribatuak, makineria, ongarriak eta kimikoak.

PROPOSAMENAK...

Egin Indiako hainbat mapa (geografikoak eta politikoak) eta sartu eman dizkizugun datuak eta beste batzuk. Adibidea: lant daitezkeen Indiako lurren mapa.

Ariketa bera egin dezakezu Espainiako lurrekin eta datuak alderatu.

Pertsona ospetsuak

Munduko herrialdeen artean, jende gehien bizi denetako bat da India. Hona hemen hango historiako eta gaur egungo pertsona aipagarri batzuk:

Gandhi (1869-1948)

Britainiar kolonialismoaren aurkako erresistentzia lider izan zen eta 1947an Indiaren independentzia lortu zuen.

“INDARKERIARIK EZA GIZATERIAK
ESKURA DUEN INDARRIK HANDIENA
DA. GIZAKIAK SEKULA EGIN DUEN
SUNTZIPENEN ARMARIK INDARTSUE-
NA BAINO INDARTSUAGOA DA.”

Tagore (1861-1941)

Rabindranath Tagore Litera-
turako Nobel sariduna 1913an,
India modernoko poeta handie-
netakoa izan zen. India inde-
pendentearen himnoa konposa-
tu zuen.

EGUZKIA GALTZEAGATIK NEGAR EGI-
TEN BADUZU, MALKOEK IZARRAK
IKUSTEA ERAGOTZIKO DIZUTE.

Vandana Shiva

Vandana Shiva doktorea fisikoa, ekolo-
gista, ekintzailea, editorea eta hainbat
libururen egilea da. Indian Navdanya
sortu du, bioaniztasuna babestearen eta
nekazarien eskubideen aldeko mugi-
mendua. Zientzia, teknologia eta baliabi-
de naturalei buruzko politiken ikerketa-
rako fundazio bat zuzentzen du.

PATENTEAK, ASKOTAN, ORAIN 500 URTEKO KOLO-
NIZAZIOAREN ERREPIKAPENA DIRA.

Amartya Sen

Ekonomialari indiarra; Ekonomiako
Nobel saria jaso zuen 1998an, ongizate-
ekonomian egindako ekarpenengatik.

Pobrezia neurtzeko indize bat egin zuen
Sen-ek, gizabanakoen ongizatea kontuan
hartuta, eta harrezkero ikertzaile askok
erabili dute.

POBREZIA, EZIAKINTASUNA, GAIXOTASUNA ETA
AUKERA-DESBERDINTASUNA EZABATZEA DA
NIRE LANAREN OINARRIA.

Mira Nair

Indiako zine-zuzendaririk pre-
ziazatuenetakoa da. Salaam Bon-
bai filmarekin hasi zuen bere
ibilbidea zinean, bere lanik
onenetako batekin. 1988an,
Cannes-eko Zinema Jaialdian,
Zuzendari Berri Onenaren
saria eskuratu zuen.

Arundata Roy

Indiar idazlea; 1997an saria
lortu zuen Gauza txikien jain-
koa obrarekin eta saritutako
lehen idazle emakume india-
rra bilakatu zen “the Booker
prize”. Gainera, 1997an gerta-
tu zen hori, Indiaren indepen-
dentiaren 50. urteurrenean.

PROPOSAMENAK...

Taldeak, hausnartu goian aipatutako lagunen bizitzari eta ibilbideari
buruz, ondoren taldeari aurkezteko.

Historia



Kristo baino hiru mila urte lehenagoko aztarnak aurkitu izan dira, eta Indo ibaiaren haranean bizi zirenek ehun bat hiri hesitu, itzelezko tenpluak eraiki, idazkera bat sortu eta zilindro-itxurako zigilu hobeekin zizelkatu zituztela frogatzen dute.

K.a. XVI. mende aldera herri indoeuroparren oldeak iritsi ziren, K.a.VI. mendetik IIV.era irandar-greziarren inbasioak gertatu ziren eta Magadha-k boterera iritsi zirenean (III-IV. mendeetan) bateratze-aldia hasi zen, indiar kulturaren aldi distiratsuenetakoa.

Indiaren beste aldi nabarmenetako bat hedapen islamikoarekin hasi zen. Zehatzago esateko, 1505 eta 1525 artean, tatararren oinordeko batek, Baber-ek, geroago Mongol Handia izendatu zuten inperioa fundatu zuen. Mongoliarren inperioko hiriburua Delhi zen.

Baberren ondorengoek islamismoa sendotu zuten. Kultura eta arteak nabarmen garatu ziren (Taj Mahal 1650 aldera eraiki zuten).

1687an Ekialdeko Indietako Britainiar Konpainia Bonbain kokatu zen; 1696an Fort Willian eraiki zuen Kalkutan eta XVIII. mende osoan bere armadak frantsesen erasoei aurre egin zien, 1784an garaitu zituen.

“Zatitu erreinatze” zen kolonialisten leloa: mertzenarioak bidaltzen zituzten eskualde batetik beste bat menperatzera. Erlijio-ezberdintasunak ere erabili ziren XX. mende hasieran; hautes-erreforma bat egin zuten eta horren arabera musulmanek, hinduek eta budistek erlijio bereko hautagaiei soilik eman ziezaieketen botoa. Aldi kolonialean, herri mailan nahiz orokorrean, arazo sozial handiak eragin zituen horrek.

Mohandas K. Gandhiri esker, 1920an jazo zen sarraski handia zela eta, Indiako Kongresu Nazionalak kanpaina bat egin ahal izan zuen eta garbi geratu zen oposizio zibilaren eragingarritasuna. 1930-1934 artean kanpaina bat egin zen bi helburu nagusirekin: erabateko independentzia zen bat eta gatzaren estatu-monopolioaren kontrako borroka bestea.

1947an India estatu independente bilakatu zen, jada ez zegoen Erresuma Batuen menpe. Eta penintsula bi estatutan banatuta geratu zen: India eta Pakistan (herritar musulmanak estatu bakar batean biltzea zen helburua). Indiako Batasunak talde etniko, linguistiko eta kultural ugari batu zituen.

Independentzia lortu zutenetik, industrializazioan oinarritutako garapen-politikak aurrerakuntza teknologikoak ekarri ditu. Horri esker, Indiak sateliteak orbitan jarri ditu eta 1974an bonba atomiko bat leherrarazi zuen. Hala ere, horrek ez ditu herritarren elikadura-arazoak konpondu.

Batasuna aniztasunean

Indiaren aniztasuna lurrean bertan hasten da (goi elurtuak, ibai joriak, oihan tropikalak, hondartza eguzkitsu ederrak, era askotako flora eta fauna) eta kultura, erlijio, hizkuntza eta bizimodu ezberdinetan jarraitzen du. Hori guztia, ordea, batasun harmonikoan biltzen da.

Mendebaldeko norbait Indiara joaten denean bizitza harmoniatsua, aniztasunaren batasuna, irribarre lagunkoia eta goxotasuna antzematen ditu, indiarren bizitza beteko sentimenduaren adierazgarriak.

India, Deepak Vohra-ren hitzetan, magikoa eta misterioetsua da, bere baitan, mundu oso bat. Nazio-ezaugarri tradizio-naletako bat ere ez dagokio. Hizkuntzak ez du nazio gisa definitzen (18 hizkuntza ofizial eta 1.000 dialekto baino gehiagotan mintzatzen dira indiarrek), ez erlijioak (ezagutzen diren erlijio handi guztiak eta ezagutzen ez direnak daude Indian; gutxienez hiru han sortu ziren), ez etniek (zuriak, koloredunak, mongoliarrek eta negroideak daude), ezta kulturak ere (iparretik hegora, ekialdetik mendebaldera, kultura eta azpikultura asko eta ezberdinak daude Indian).

India bakarra da; bost mila urtetik gorako zibilizazioa, arraza-aniztasuna, hizkuntza txundigarriak, kultura tradizionalak, soineko ikusgarriak eta exotikoak eta festaz beteriko egutegia du.

Indiak bezain kultura zaharra eta askotarikoa duten herrialde gutxi daude munduan. 5.000 urte baino gehiagotan, Indiako kultura etengabe aberastu da, bata bestearen atzetik migrazio-oldeak bere egin baititu indiar bizimoduak.

Kultura-aniztasun hori Indiaren ezaugarri bereizgarria da. Aniztasun fisikoa eta erlijio- eta arraza-aniztasuna hizkuntza aniztasuna bezain handiak dira. Aniztasun horretan datza zibilizazioaren jarraitutasuna eta gizarte-egitura antzinako garaietatik gaur egunera. India modernoko aniztasunaren batasunak ez du parekorik historian.

PROPOSAMENAK...

Badakizu zenbat erlijio dauden Indian? Badakizu zenbat etnia dauden eta geografikoki nola banatuta dauden? Badago loturarik erlijioaren eta/edo etniaren eta kokaleku geografikoaren artean?

Adibasien, Indiako lehenengo biztanleen, historian sakontzera gonbidatzen zaitugu. Zer esan diezagukezu haiei buruz? Bilatu web orrian!!!

Erlijio-aniztasuna

Indian, erlijioa bizitzeko modua da. Indiar gehienentzat erlijioak bizitzako alderdi guztiekin du lotura, eguneroko eginbehar ohikoenetatik hasi eta heziketa- eta politika-alderdietaraino. India sekularrean hinduismoa, islama, kristautasuna, budismoa, jainismoa, sikhismoa eta beste hainbat erlijio-tradizio daude. Fede nagusia hinduismoa da, herritarren %80k praktikatzen dute. Hinduez gain, musulmanak dira erlijio-talde adierazgarriena, eta indiar gizarteko zati integral bat dira. Izan ere, Indonesiaren atzetik, Indian daude musulman gehien munduan.

Jarduera bateratuek sartu dituzte erlijio gehienak Indian, eta urtez urte musika, dantza eta festa eginez ospatzen diren jaialdiak komunitate guztiek ospatzen dituzte. Bakoitzak bere erromesbideak, heroiak, kondairak eta jakiak ditu, eta aniztasun hori gizartearen adierazgarria da.

Indiako erlijio nagusiak

Hinduismoa

Islama

Sikhismoa

Budismoa

Kristautasuna

Jainismoa

Zoroastrianismoa

Hinduismoa

Hinduismoa da, agian, premisa teorikoetan eta espresio praktikoetan aldaera gehien dituen erlijioa eta, ondorioz, “erlijioen museo” izenda daitekeen bakarra. Erlijio honek ez du sortzaile jakinik, ezta “liburu sakraturik” ere. Rig Veda, Upanishads eta Bhagwad Gita har daitezke hinduisten testu sakratu gisa.

Gainerako erlijio handiek ez bezala, hinduismoak ez du jainko jakin bat gurtzen. Xiva gurtu daiteke, edo Visnu, edo Rama, edo Krisna, edo beste edozein jainko; edo “Espiritu Gorenean” edo norbere barruko “Arima Suntsiezinean” sinetsi.

Jaialdi eta zeremoniak ez dira jainkoen ohorez soilik egiten, baita eguzkiaren, ilargiaren, planeten, ibaien, ozeano-

en, zuhaitzen eta animalien ohorez ere. Hinduisten herri-jaialdi batzuk hauek dira; Deepawali, Holi, Dussehra, Ganesh Chaturthi, Pongal, Janamasthmi eta Xiva Ratri. Festa horiek guztiek hinduismoa oso erakar-garri egiten dute herritarrentzat, eta indiar tradizioei aberastasuna eta kolorea ematen diete.

Balentria epikoetako heroiak, Mahabharata eta Ramayana adibidez, hilezkorrak dira eta herritar xume-en eguneroko bizitzan daude. Hinduisten jainkoak, aldi berean, super-gizakiak eta gizakiak dira, eta eurenganako berotasun eta hurbiltasun sentimendu ezberdinak daude.

PROPOSAMENAK...

Saiatu Indiako beste erlijioak antzera aurkezten

Sakondu gehiago “espiritu gorena” eta “arima suntsiezina” kontzeptuei buruz. Zer adierazten dizute?

Emakumea



Emakumeak munduko biztanleen erdiak dira, baina euren estatus sozial, ekonomiko eta politikoa gizonezkoena baino askoz baxuagoa da herrialde askotan, tartean India.

Faktore askok eragiten dute emakumeen estatusetan, besteak beste: kasta-sistema, erlijioa, heziketa, faktore ekonomikoak... Eta testu legalek bi sexuen arteko berdintasuna aldarrikatzen badute ere, legeak ez dira erabat betetzen eta eskandalagarria da.

Indiako emakumeen egoera adierazten duten bi arazo nagusi daude: analfabetismoa eta bazterketa.

Gizarteari dagokionez ere bi gaitz daude:

- **kasta-sistema**, gizataldeen banaketa bortitza eragiten duelako eta boterea eta baliabideak gutxi bazuen esku uzten dituelako.
- **sistema patriarkala**, mespretxu gehien jasaten duten taldeen komunitateetan inposatua.

Hinduista ez direnen artean ere (eta, beraz, kasta-sistemarik ez dutenen artean, sistema hori hinduismoaren ezaugarria baita) emakumeak baztertuta daude. Kasu horretan arrazoi nagusiak erlijioa eta heziketa falta dira. Erlijio-testu gehienetan agertzen da gizonen nagusitasuna eta horrek teoria bat sortzea ekarri du, “Gizonezkoen menderatze-teoria”. Teoria horretatik sortu da sistema patriarkala, emakumeak bigarren planoan, etxea eta haurrak zaintzen eta lurra lantzen, jartzen dituen sistema.

Arrazoi berak justifikatuta, tratu txarra ematen dieten gainera; indarkeria, bortxaketak eta eraso psikologikoak.

Heziketa faltak garrantzi handia du egoera orokorrean ere. Dalit-en (kastarik gabeak) eta adivasi-en (indigenak) kasuan, heziketa-maila oso eskasa da. Neskatilak 12 urtera arte soilik joaten dira eskolara. Gero, haurrak ezkontzea debekatuta dagoen arren, ezkondu egiten dira edo nekazaritzan jarduten dute. Emakume heldu gehienek ez dakite irakurtzen ez idazten. Horrek euren eskubideak zeintzuk diren eta euren egoera aldatzeko nola borrokatu behar diren ez jakitea dakar, eta sufrimendua normalizat hartzen dute, askotan baita justifikatu ere.

Gobernuak eta GKEek emakumeei laguntzeko jarduerak eta programak prestatzen dituzte. Emakumeen independentzia ekonomikoa eta heziketa-maila egokia lortzea da helburua. Izan ere, emakumeen autoestimua indartuko luke horrek eta gizartean duten rolaz jabetuko lirateke.

PROPOSAMENAK...

Ikertu emakumeen eskubideei buruz eta haiekin lotuta mundu mailan eta Indian egiten denaz. Iker ezazu zer gertatuko den 2005ean munduan, Indian, zure herrialdean...

www.socialwatch.org/es/compromisos/compromisosBeijing.htm

Hausnartu Indiako emakumeen eta hemengo egoerak dituzten antzekotasunak eta desberdintasunak. Zer adierazten dizu horrek?

Kastak...

Indiaren ezaugarri sozioekonomiko eta demografikoetako bat kasta-sistemak ezartzen duen estratifikazio sozial zurruna eta gogorra da. Banaketa sozial horrek hinduei eragiten die (populazio osoaren % 80 gutxi gorabehera, 800 bat mila lagun) eta arioen inbasioa gertatu eta gero-ko gizarte-antolaketan du oinarria (K.a. 1.500 urte inguruan). Lau avarna (kolore) edo kasta bereizten zituzten orduan: brahaman, kshatriya, vaishya eta sudra.

Kasta bakoitzak jarduera ekonomiko zehatz bat du. **Brahamanek** dute botere ekonomiko, politiko eta erlijioso, eta horien atzetik daude gainerako kastak. Lau kasta nagusiok, era berean, ehunka azpikastatan banatzen dira (hurrenkera hierarkikoa dutenak), eta kasta batetik bestera aldatzeko modu bakarra berraragizatzea da, izan ere, kasten arteko ezkontzak (eta subkasten artekoak) debekatuta daude. Kasta-sistematik kanpo dauden hinduak (**avarna-k**) “ukiezintzat” hartzen dituzte jende xeheak; euren kondizio soziala dela eta, ezpurutat dituzte (purutasuna garrantzitsua da sistema horretan). Klasifikazio horren ondorioz, tradizioan, lanik gogorrenak eta iraingarrienak egin behar izan dituzte eta beste kasta guztietatik erabat bereizita bizi dira; hiri-kokalekueetatik aparte daude avarnen auzoak, ez dute gainerakoen putzuetatik edaten, etab.

Indiako Konstituzioa “ukiezin” batek idatzi zuen, Amdebkar doktoreak, eta arraza-diskriminazioa erabat baztertzeko saiatu zen. Horretarako, diskriminazio positiboa proposatu zuen, dalitek (“malkartsuak”, ukiezinei

horrela deitzen diete geroztik), adivasiek (talde tribalak; hinduistak ez direnez, ez daude kasta-sistemaren barruan) eta kasta baxuagoetako kideek aukera sozioekonomikoak izan zituzten. Daliten (160 bat milioi guztira) egoera pixka bat hobetu da; teoriarik konstituzioak eta legeek ematen diete bermea, baina praktikan baztertuta daude eta eskubiderik oinarritzkoenak urratuta dituzte, batez ere, landa-eremuetan, esklabotasuna bizi-bizi baitago oraindik.

Arrazakeriaren Kontrako Munduko Konferentzian (Durban, 2001eko abuztua-iraila), GKEek eta gizarte-erakundeek kasta-sistema baztertzeko modu onartezintzat hartu nahi izan zuten. Indiako Gobernuaren presioek (brahamanen menpe zegoen, noski) eragotzi zieten, eta daliten arazoa aipatu besterik ez zuten egin azken deklarazioan. Dena dela, nazioartean arazo larri horren gaineko kezka piztea lortu zuten.

Gaur egun, gobernu-koalizioko alderdia, BJP, nazionalista hindua da eta brahamanen nagusitasunaren eta kasta-sistemaren alde dago. Horregatik, giza eskubideen eta daliten aldeko taldeek zailtasun handiak dituzte euren lana behar bezala egiteko, administrazio zentrala oztopo handia baita. Gizartean, ekonomian eta erakundeetan dituzten oztopo guztien gainetik, dalit batzuek aurrera egitea lortu dute Indiako hainbat bizitza-alorretan, alor politiko eta akademikoan esate baterako.

Kontsultatu

PROPOSAMENAK...

Kontsultatu Arrazakeriaren Kontrako Munduko Goi-bilerako informazioa www.un.org/spanish/CMDR/index.html eta lortu kasta-sistemen kritikei buruzko informazioa.

Lurrikara

Lurrari dortoka baten gainean dauden lau elefantek eusten diote. Dortokak, era berean, kobra baten gainean eusten dio orekari. Animalia horietako bat mugitzen denean, lurrak dar-dar egiten du. (Indiar kondaira)

2001eko urtarrilaren 26an lurrak dar-dar egin zuen Gujerat inguruan. Han bizi ziren asko eta asko hil ziren, eta beste asko herririk gabe, etxerik gabe geratu ziren. Richter eskalan 6.9-7.9 gradura iritsi zen ikara.

Lurrikarak failek edo lurrazalean dauden tolesdurek eragiten dituzte. Tolesdura horiek desplazatzen direnean lurrikarak edo itsasikarak eragin ditzakete.

Gujeraten eta Indiako iparraldean lurrikarak gertatzeko arriskua handia da. Indiako plaka tektonikoen tentsioa eta mugimendua neurtzen duten ikerketa zientifikoek erakutsi dute oso litekeena dela 2010 baino lehen lurrikara handiago batek Shillong plakari erasotzea.

TELEGRAMA:

2001eko URTARRILAK 26 STOP
LURRIKARA GUJERAT ESKUAL-
DEAN, INDIAN STOP 50.000
LAGUN HIL STOP HAINBAT
HERRI BIRRINDUTA MINUTU
BAKAR BATEAN STOP ADMI-
NISTRAZIOAREN ERANTZU-
NA ESKASA STOP LARRIALDI-
KO LAGUNTZAN DISKRIMI-
NAZIOA STOP

Lurrikarak mintzagai ditugunean hondamendi naturalak izaten ditugu gogoan. Egia esan, lurrikaren sorburuak naturalak dira, baina gizateriak ere garrantzi handia du lurrikaren eraginean. Bestela, lurrikaren eragina zergatik da desberdina Gujeraten eta San Frantziskon?

Prebentzio-politikak martxan jarrita eta lurrikaren ondoren Gobernuaren laguntzak behar bezala banatuta, lurrikaren eragina txikitu daiteke, eta garrantzi-tsua da hori kontuan hartzea. "Citizen.s Initiative" sarean bilduta dauden hainbat GKEk salatu egin dute Indiako Gobernuak larrialdiko laguntzak banatzeko erabiltako sistema. Esan dutenez, laguntza guztiak ez dira iritsi eta iritsi direnak ez dizkiete beharrik handiena zutenei eman. Guk laguntzen diegun erakunde batzuk borroka horretan dabiltza.

"EGOERA TAMALGARRIA DUTEN ARREN, DUINTASUN HARRIGARRIA ERAKUSTEN DUTE; BISITARIARI URA EDO TEA ESKAINTZEN DIOTE, ORDAINETAN EZER ESKATU GABE ETA LAGUNTZEKO ERREGUTU GABE" (LEKUKOA)

PROPOSAMENAK...

Zure ustez, hondamendi naturalek zergatik dute eragin desberdina Gujeraten eta Los Angelesen? Zein baliabide bururatzen zaizkizu desberdintasun horiek desagerrarazteko?

Dantza Indian

Dantza antzinako zibilizazioaren adierazpideetako bat da Indian. Zibilizazio horren jakinduriak gizakiaren bila jarraitzen du, inguratzen duen munduarekin eta gizakiaren beraren garapenarekin harremanean. Ezaugarri hori, bizitzaren zentzu filosofikoaren bila ibiltzea, ez dagokio dantzari soilik, arte guztiei baizik.

Indian landa-eremuetako jantzi tradizionalak erabiltzen dituzte dantzarako. Eskualdeen artean alde handia dago eta jantzi-mota asko daude. Eremu mortuetako jatorrizko janzkera oso distiratsua da, lurraren idortasuna eta elkortasuna orekatu edo arintzeko beharbada. Aldiz, eskualde berdeenetako jatorrizko janzkiak argiagoak eta apalagoak dira.

Emakumeen jantziak askotarikoak dira; badira “saree”-a janzten dutenak, baina badira kamiseta zabalak janzten dituztenak ere. Gizonek bularraldea agerian izaten dute, edo txalekoa eta barren estuko galtzak janzten dituzte.

Apaingarri eta bitxietan ere nabarmenak dira aniztasuna eta garaian garaiko ohiturak; maskorrak eta idunekoak erabiltzen dituzte, baina baita urrea eta zilarra ere.



Indian gaur egun egiten den lana

Gaur egun, talde batzuek bi lan nagusi egiten dituzte aldi berean; alde batetik, Indiako tradizio kultural eta artistikoak berreskuratzen dihardute, eta, bestetik, ikerketak egin eta talderik baztertuenen duintasuna eta autoestimua indartzen laguntzen dute. Hona hemen horretan diharduten erakunde batzuk:

JANAVAK, Indiako Gujerat estatuko dantza- eta musika-taldea. *Darpana Academy of Performing Arts*
www.darpana.com akademiako taldea da. 1982tik folklore indiarra zaintzen dihardu akademia horrek.

Gurjarvani, **www.gurjarvani.org** Javier Komunikazio eta Kultura Zentroa, Jesusen konpainiako GKEa. Adivasiei, Indiako Gujerat estatuko talde marjinal eta ahulenari, zuzendutako ikus-entzunezko programak ekoizten ditu.

ALBOAN, **www.alboan.org** Jesusen Konpainiako GGKEa, herrien arteko elkartasunaren alde eta iparreko eta hegoko erakundeen eta pertsonen arteko harremanaren alde diharduena. Lan hori, besteak beste, Indiako Gujerat inguruan egiten da, lehen aipatutako taldeekin eta beste batzuekin.

PROPOSAMENAK...

!!!**Egin** begiratu bat web orriei, eta arteaz baliatuz pertsonak garatzearen alde nola lan egin daitekeen ikusiko duzu!!!

!!!**ALBOAN**eko atek irekita dituzu!!!

Para saber más de la India, consulta....

<http://www.guiadelmundo.com/paises/india/>

INFORMAZIO OROKORRA: OINARRIZKO DATUAK, MAPAK, HISTORIA, BIZ-TANLERIA, TURISMOA.

<http://es.india-tourism.com/index.html>

INFORMAZIO OROKORRA, KULTURA, INGURUMENA ETAB.

<http://membres.lycos.fr/soloindia/>

INDIARI BURUZKO TURISMOKO INFORMAZIO OROKORRA.

<http://www.eurosur.org/guiadelmundo/paises/india>

HISTORIA, ESTATISTIKAK, MAPAK.

[http://www.viajar.com/guias/\\$loc=1:4:36](http://www.viajar.com/guias/$loc=1:4:36)

INDIARI BURUZKO TURISMO-GIDA.

http://www.masdeviajes.com/art_destino.cfm?item=461

HELBIDE ERABILGARRIAK DITUEN WEB-A: GIDAK. MAPAK, INDIARI BURUZKO ARGAZKIDUN LIBURUAK.